



Jende ugari bildu zen kulturetxean asteazkenean emandako hitzaldira.

Alternatibak badaude

Jordi Colomer eta Julia San Joserren esanetan, atez-ateko bilketa eta konposta dira alternatibak

Asteazkenean erraustegien inguruko hitzaldia eskaini zuten kulturetxean Jordin Colomer, ingurugio teknikariak eta Julia San Jose, medikuak Lasarte-Oria Bizirik taldeak antolatuta. Atez-ateko gaikako bilketaz, konpostaz eta erraustegiak osasunean duen eragin kaltegarriaz aritu ziren. Hitzaldiaren informazio zabalagoa laugarren orrian topatuko duzue.



Luis Zamorak azaldu dizkigu garraiolarien grebaren gakoak /5

KULTURA ■ 3

Albokak eta Tirri-Tarrak Argi Beltz eskainiko dute larunbatean Andatza plazan

KULTURA ■ 3

Ruben Salvador tronpetariak gidatutako laukotea Jalgi tabernan 22.30ean

KIROLA ■ 6

Atletismoan, judoan eta gimnasia emaitza onak lortu dituzte

Partaide asko Sorgin-Dantzako entsaioetan

San Pedroak gerturatzan direla eta, hasiak dira Sorgin-Dantzako entsaioak. Gogoratu festak hasten diren egunean dantzatzela, arratsaldeko 18:00etan Oriatik hasi eta Okendora iritsi arte. Pasa den asteazkenean entsaioan ehun lagunetik gora hartu zuten parte; horietatik asko haurrak (erdia inguru), baina txintxo-txintxo aritu ziren dantzan musikari ederki jarraituz.



M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....



KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

BELARTZA JATETXEA TABERNA

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Larunbata gaua
eta igandea
ixtari!

Belartza poligonoa
Gurutzegi kalea 15, 4A Pabillioia
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

Zorion-agurrak



Lore

Lehenengo "korritze-ko" prest? 23 urtekin sasoiaren egongo zara. Zorionak.



Ibai

Zorionak zure gurasoen partetik zure bigarren urtebetetzean.



Olatz

Zorionak polita 5 muxu gurasoen eta Haritzen partetik



Adriana

5 muxu handi gurasoen, izebaren eta aitonen partetik.



Sandra

Zorionak Vanessa, aita eta amaren partetik. Muxu asko.



Nerea eta Gabi

Zorionak ondo pasa eta muxu handi bat.



Ander

Bederatzi muxu Aritz, guraso eta aitonen partetik.



Erik

Zorionak zure osaba-izeben partetik. 6 muxu handi.



Ainara Marta eta Aaron

Zorionak hirukote eta orain bezain ondo jarraitu zuen ikasketetan. Muxu handi bana aitonen partetik.



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• 60m karratuko lokal bat saldu edo alokatzen da Andatza plazan, pisu bat egiteko egokia.
Tel.: 943 363722(Cecilia Arbizu)

• Bi logeletako pisua salgai Urbarten.
Tel.: 600 730512.

• Urbarten marrako garaje plaza bat alokatzen da. Tel.: 943 363524.

Salerosketak

• Kanpin-denda bat (karroa) salgai, Conver 13 modeloa. 2 logela eta abantzea. Tel.: 620 624243.

• Xbox360 kontsola eta 2 joku salgai. Berri-berria, erabili gabea.
Tel.: 620 624243.

Lan-eskaintzak

• 5.mailako haur bati klase partikularak euskaraz emateko norbait behar da. Tel.: 610 285260

• Etxeko lanetarako, pertsona nagusiak zaintzeko, zein dandari gisa lan egiteko prest nago. Tel.: 626057485

• Ile-apaindegi batean lan egiteko pertsona bat behar dute. Tel.: 615 781116

• Pertsona euskaldun bat behar da Lasarte-Oriako taberna baten garbiketa egiteko. Tel.: 629 951 931.

Lan-eskariak

• Neska bat eskaintzen da udan klase partikularak emateko edo haurrak zaintzeko. Tel.: 647 142701.

• Neska arduratsu batek etxeko lanak egiten eta haurrak zaintzen lan egingo luke. Tel.: 679 853342.

• Neska bat eskaintzen da etxeko garbiketa lanetan aritzeko. Esperientziduna eta informaduna. Tel.: 626 174129.

• Thai masajeak ematen ditut Orbela belar dendan, pertsonaren ongizatea hobetu eta harmonizatzen. Tel.: 689 182502

• Magisteritza egiten ari den neska bat eskaintzen da udan haurrak zaintzeko eta ikasketetan laguntza emateko. Euskara, gaztelera eta ingelese menperatzen ditu. Tel.: 696776809

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4



Gazte Informazioarako Udal Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki Kalea 18 • Tel.: 943 376181

Araba Euskaraz 2008

Asteburu honetan ARABA EUSKARAZ 08, Arabako ikastolen aldeko jaialdia, ospatuko da Bastidan. Aurtengorako aukeratutako leloa *Ametsak dirau* da eta jasotzen den dirua Bastida Ikastola-erentzako izango da. Animatu eta zoaz kuadrilarekin! Hara iristeko behar duzuen guztia www.arabaeuskaraz.net orrian aurkituko duzue.

Gazteen Elkartrukea

Uztailaren 13tik 27ra Donostiara Wiesbadenerako 10 gazte etorriko dira hiriko zenbait gazterekin "Elkarrekin Birmoldatuz" elkartruke programan parte hartzeko. Egun hauetan zehar, Donostiako 10 gazte (5 neska eta 5 mutil) 17-24 urte bitartekoak, Wiesbade-

neko beste 10 gazterekin ideiak eta esperientziak trukatu eta zenbait ekintzetaz gozatzeko aukera izango duzue. Izen ematearen epea eta tokia: Ekainaren 6tik 20ra. Gazteria eta Giza Eskubideen Atala Mari kalea 1, 20003 Donostia. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943.481909 telefono zenbakira.

Azoka Ficoban

2008ko ekainaren 20tik 22ra gastronomia, aisia, turismoa eta komertzioaren azoka ospatuko da Irungo Ficobako erreintzoan. Ostiralean, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara eta larunbatean goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara. Igandean goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara.

Guardiak

Ostrala, 13

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Larunbata, 14

Acha-Orbea, Hipodromo et.6
Tel.: 943 363549

Igandea, 15

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 16

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteartea, 17

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 18

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 19

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak

Leon Gonzalez Infante, ekainaren 6an.
Maitane Sarmiento Ortiz, ekainaren 6an.
Markel Calleja Hernando, ekainaren 4an.

Heriotzak

Trinidad Aguirre Cortazar, ekainaren 11n 98 urte zituela.
Ernestina Herrero Garcia, ekainaren 10an 92 urte zituela.
Manuel Chato Alicante, ekainaren 9an 80 urte zituela.
Laura Lasala Alfonso, ekainaren 7an 87 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Alboka Tirri-Tarrarekin

■ Argi Beltz ikuskizuna eskainiko dute larunbatean Andatza plazan 23:00etan: Alboka abesbatzarekin batera Sotto Voce orkestra arituko da

TXINTXARRI

80 artistatik gora bilduko dira larunbatean Lasarte-Oriako Andatza plazan. Tirri Tarra taldeak kontzertuan aurkeztuko du bere bigarren diskoa, Argi beltz, Sotto Voce orkestra eta Alboka abesbatza lasarte-oriatarrekin batera. Rock sinfonikoko ikuskizuna 23.00etatik aurrera ikusteko aukera izango da eta Udaleko Gazteria eta Festetako sailak antolatu du. Doako emanaldia izango da.

Badira bederatzir urte Tirri Tarra fanfarre pasaitarra orkestra bihurtu zenetik eta Argi Beltz Et Incarnatus orkestrarekin eta Donostiako Orfeoia-ekin grabatutako lana da.

Alboka abesbatza bertan kantuan

Herriko Alboka abesbatza izango da oraingo honetan Orfeoia-aren lekua hartuko duena.

Esan digutenez, "abesbatzen munduarengandik jaso dugun erantzuna ezin hobea izan da eta aurreko urtean hamar kontzertu eskaini genituela Euskal Herria eta Galizian, tokian tokiko abesbatzak gurekin kantatzen zuela. Hamar abesbatza hauekin eta Sotto Voce orkestrarekin egindako emanaldi hauek guztiak, eta esperientzia oro har, oso polita eta



Tirri-Tarra taldeak Kursaal-ean eskainitako Argi Beltz ikuskizunaren irudia.

hunkigarria izan da. Txalotze-koa da abesbatzek egindako lana eta nola bereganatu duten geure musika, eurak ere "Luz Negra / Argi Beltz"en parte izatera arte".

Proiektu hau ia lau urteko lanaren ondorioa da Tirri Tarrako kideentzat. Bitarte horretan taldeko kidea den Sergio Zurutuzaren konposizioak prestatu dituzte. Oso

estilo ezberdinak biltzen dituzte, sinfonismo klasikotik rock estilora, heavy eta folk kutsuekin.

Eszenaratzen duten ekitaldia ikusgarria da eta kritikak "izugarria" eta "liluragarria" bezala definitu du.

Jesus Maria Zaballos buru den Gazteria eta Festak sailaren helburua da, berak azaldu duen moduan, "estilo

ezberdinetako artistak kontzertuan ekartzea, publiko ezberdinari zuzenduta, jakin baitakigu Lasarte-Oria-ko gustu musikala askotarikoa dela". "Zentzu horretan lanean jarraituko dugu, izan ere, gazteek hitz egiten dugunean ez diegu erreferentzia egiten 15 eta 18 urte artekoek bakarrik, baizik eta 28 eta 30 artekoek ere".

Xirimiriren XVII. urteurrena

Larunbatean, ekainak 14an, Xirimiri elkarteak urteurrena ospatuko du. Goizean Buruntzara mendi martxa antolatu dute eguna ondo hasteko. Bazkaldu baino lehen trikitioa egongo da Txalagoreren eskutik eta 14:30ak aldera herri bazkaria elkartearen. Bazkalostean Mus txapelketa dago digestioa lasai eta ondo egiteko.

Gau partean, 20:30ean, musika emanaldia eta festa egongo da Apurka eta Pettiren eskutik. Apurka taldeak Balmasedako akustikoa eskainiko du kitarra, txalaparta, zeharkako txirula, baxua eta ahotsekin. Beratik datorren Petti "On" diska kaleratu berriarekin dator bakarlari formatuan.

Emanaldi amaitean Xirimiri elkartearen Txirrisklasa Jai-akelarrea egingo da festarekin jarraitzeko. Txirrisklasa prezio herrikoiean, barra, saltsa eta festa giroarekin bukatuko da larunbateko gaua eta Naken Selektor-ek Ska-Rocksteady-reggae saioarekin festa goizalderarte iraun dezan lagunduko du. •

Meza Rocieroa eta erromeria

Igandean, ekainaren 15ean, "Semblante Andaluz" Andaluziako elkarteak XVI. Rocioko erromeria egingo du egun osoan zehar. Ospakizunera elkarte asko gonbidatu dituzte, Zumarragako "Grupo Boreal", Irungo "C. Embujo Andaluz", Errenteriatik "C. Andaluz Aljarafe" eta "C. Concha Rociera", Andoaino "Asociación Triana", Arrasateko "C. Andaluz Al-Andalus", Durangoko "C. Andaluz", "Grupo Amigos del Sur" eta "Grupo Sentimiento".

10:00etan Elkartearen hasiko dute eguna elkarte gonbidatuei eta romeroei ongi etorria emanez. 12:00etan Ama Birjinaren bila jeitsiera egingo dute Arantzazuko Amaren Parrokira, Zumaburrun, eta eguerdiko 12:30ean meza rociroa izango da "semblante rociroa" abesbatza-aren eskutik. 13:30ean Ama Birjinaren iterea Parrokiatik Isla plazara eta 14:00etan Ama Birjinari ongi etorria egingo zaio Erromeria ospatuko den tokian.

Arratsaldean, 16:30ean, Semblante Andaluz eta elkarte gonbidatuen ekitaldiei hasiera emango zaie eta animatzen den guztia-erantzat dantzaldi herrikoia izango da 19:30ean. Gaueko 21:00etan amaiera emango zaio festa eta jardueraz betetako egunari. •

Ruben Salvador tronpetariak gidatutako laukotea Jalgin

Gaur gauean, Ruben Salvador 4et taldearen emanaldia izango da ikusgai Jalgin 22:30ean. Taldea Musiken sortu zen, Euskal Herriko goi mailako musika eskolan.

Taldea honako musikariek osatzen dute: Ruben Salvador bera, tronpeteta eta flugelarekin; Hasier Oleaga, bateriarekin; Javier Mayor, kontrabaxuarekin eta Alejandro "Satxa" Soriazu, pianoarekin. Kide guztiak dira Jazz-ean goi-mailako lizentziadunak eta hainbat kontzertu garrantzitsu eskaini dituzte.

2007ko Burgoseko Jazz jaialdian parte hartu zuten eta Errioxa, Cantabria, Gaztela eta Leon eta Euskal Herriko hainbat Jazz klub

garrantzitsuetan jotzen dute sarritan.

Jazz Standardean oinarritzen diren abestiak jotzen dituzte eta zuzenekoak musikariren arteko komunikazioa eta primerako bateratzeagatik bereizten dira. Horrela, musikariren esperientzia zabala dela eta ikus-entzuleak ez du arretarik galtzen emanaldi osoan zehar eta ikusteko eta entzuteko den ikuskizun politaz gozatzen dute bertaritutakoek.

Abesti gehienak tronpetajole ezberdinek konposatu-koak dira, zuzeneko aberatsa eskaintzen dutelarik, Be-bop estilotik gaur egunekoraino musika jotzen dute eta guztietan bereizten da tronpetaren papera. •



‘Erraustegiak gizakiaren izatearen funtsa zapuzten du’

■ Erraustetaren Aurkako Koordinadorak manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du: ekainaren 14ean, larunbatean arratsaldeko 18:00etan Donostiako Boulevardetik abiatuta

Lasarte-Oria Bizirik taldeak asteazkenean, hilaren 11n, kulturetxean erraustegien inguruko hitzaldia eskaini zuen eta bertan, Jordi Colomer ingurugiro teknikaria eta Julia San Jose medikua izan ziren. Atez-ateko gaikako bilketaz, konpostaz eta erraustegiak osasunean duen eragin kaltegarriaz aritu ziren. Erraustetaren aurkako kideek larunbatean Donostian egingo den manifestazioan herritarren partehartzea ezinbestekoa dela gogoratu zuten.

HELENA FERRERAS

Jordi Colomerrek eskaini zuen hitzaldian datu oso adierazkorak eman zituen: "gaur egungo zaborraren %90a birziklatu daiteke, portzentai horren %40a materia organikoa delako eta gainontzekoa papera, kartoia eta ontziak. Gaikako bilketarekin beraz sortzen den zaborraren %90a berreskuratu daiteke eta horrela zabor gutxiago sortu". Gipuzkoan %20aren azpitik birziklatzen da, baina Lasarte-Oriako datuak San Markoseko mankomunitatean dauden datuen artean hoherena da, baina askoz gehiago egin daitekeela esan zuen Colomerrek.

2001. urtetik gaikako bilketa derrigorrezkoa den arren, gai organikoak oraindik ez dira jasotzen eta esan bezala zaborraren parte handia da. Denetik onartzen duten kontenedore berdeak dira Colomerren usteetan "etsai nagusiak", dena onartzen dute, dena dago nahastuta bertan eta zabor hori kudeatzea zaila egiten da ondoren. Orain zaborteia istea planteatzen da eta erabaki ona den arren, zer egingo dugu zaborrarekin?

Disputazioak erreustegia planteatzen du konponbide moduan. Elektrizitatea sortzeko balio duela diote, baina "sortzen duena baina energia gehiago kontsumitzen du beraz, balantzea negatiboa da", Colomerren ustez, "printzipioz konponbide polita dirudiena, ez da hain egokia".

Ondorio latzak osasunean

"Erraustegiak ondorio latzak eragiten ditu osasunean". Juliak argi dauka horrelako gauza batek sortzen dituen kalte larriak eta denok jakin beharrekoak direla, nahiz eta "administrazioetatik ez diren mahai gainean jartzen. Gainera, erraustetaren aldeko mediku bat bera ere, ez dugu aurkituko".

Erraustetaren mehatxuaz jabetu eta duela urte askotatik jakinak diren datuak, ezkatzen ari direla konturatu ziren. Tximiniek igortzen dutena eta erraustegiak sortzen dituen hondakinak "osasunerako gaur egun ezagutzen diren material kaltegarrienetarikoa direla ez dute esaten" Juliaren esana.

Dioxinaz eta mikropartikulen inguruan hitz egin zuen ere medikuak, garrantzitsu eta kaltegarriak direlako, baina ez bakarrik. Dosi txikitari arnasten dena gorputzean gordetzen da, tabakoaren adibidea garbia da erraustegiak daukan efektua azaltzeko. "Dioxinek minbizia eragiteko ahalmena daukate, enbrioak kaltetzen ditu eta funtzio endokrinoa aztoratzen du. Minbiziak gain, garrantzia bera duten biriketako eta buruko gaixotasunak eragiten dituzte erraustegiaren hondakinek", Juliak azaldu zuenez.

Zabor erreustegiek metal astunen dosi handia botatzen dutela esan zuen Juliak. "Erretzean, batzuk filtroetan geratzen dira, baina beste asko ez. Egun ez dago horiek gelditu ditzakeen filtrorik. Haien artean merkurioa dago: nerbio sistemari zuzenean eragiten dio, pertsonaren pentsamendua kaltetzen du, pentsatzeko ahalmenean, nortasunean eta herremantzeko eran eta insomnia eta depresioa eragiten ditu ere".

“ Erraustegirik ez badugu nahi, guztion inplikazioa beharrezkoa da alternatibak martxan jartzeko, atez-ateko gaikako bilketa esaterako



Jordi Colomer eta Julia San Jose asteazkeneko hitzaldian kulturetxean.

Mikropartikulek ere filtro guztiak gainditzen dituzte, bai erraustegiarenak eta baita gizakiak suderean, bronkieotan eta abarretan dauzkagunak ere. "Kontutan hartu behar dugu, kalteak ere ekosistema bati egiten zaizkiola eta horrek ez duela esan nahi gizakiok kalte horietatik libratzen garenik, gizakiak bertan bizi garelako eta zuzenean eragiten digu hor dauden ura, lurra eta airearen egoerak".

Juliak amaitzeko, hondakinak oso toxikoak direla, minbizi sortzen dutela, akats batek egoera toxiko ezezaguna sortu dezakeela eta arrisku honen aurrean haurrak direla ahulenak azaldu zuen. "Azken finean, gizakiaren izatearen funtsa zapuzten du erraustegiak. Hau saihesteko

alternatibak daude eta horien alde apustu egin behar dugu".

Alternatibak

Jordik, erraustegira eta zaborregira bota nahi ez ditugun hondakinekin zer egin dezagun azaldu zuen hitzaldiari amaiera emateko. "Lasarte-Orian zaborraren %90tik %25a ari gara errekupepatzen, baina gehiago egin dezakegu atez ateko bilketarekin".

Hondakinak murrizteko alde batetik ahalik eta hondakin gutxien sortu behar dugu; beste aukera bat da etxean lekua dutenek, adibidez lorategitxo bat, bertan konposta egin ahal izatea. Hau egitea ezinezkoa bada etxeko bilketa proposatzen du Mankomunitateak. Gai bakoitzari egun bat egokitu eta egun

horretan portalean ontzi batean utzi beharko da zaborra. Gai bakoitzaren kopurua araberakoa izango da jasotzera joateko egun kopurua, adibidez: materia organikoak astean hiru egun izango ditu eta paperak bat. Katalunian eta Mallorcan hasiak dira horrelako bilketak egiten eta emaitza ona lortu dira, %20etik %70era igo da berreskuratu daitezkeen jasotako gaien kopurua.

Egitasmo honekin hasiz gero, informazioa asko egongo da herritarrarentzat. Garbi utzi zuen Colomerrek "hau aurrera atera dadin, denon parte hartzea ezin bestekoa da, herritarron eta udalaren inplikazioa lortu behar da, guztion onurarako izango den emaitza lortzeko".



‘Hogei kamioi dituenak hogei zulo ditu’

Astelehenetik greban izan dira Gipuzkoako garraio enpresak atzo azken orduan lanean hastea erabaki zuten arte. Gasolioaren igoerak estuasunean jarri ditu: salneurriak ere maila berean igo beharko lituzkete, baina zailtasunak dituzte bezeroei tarifak igotzeko. Horregatik eskatzen dituzte, automatikoki berrikusiko diren tarifa ofizialak. Horrela inork ez luke hortik behera lanik egiterik. Luis Zamora Lasarte-Oriako Hermanos Paino enpresakoak azaldu dizkigu garraiolarien arazoak.



JON ALTUNA

Gasolioaren igoerarekin "zenbat eta kamioi gehiago eduki orduan eta zulo handiagoa" daukatela dio Luis Zamora Paino Guitrans elkartearen dagoen Hermanos Paino garraio enpresako kideak. Igoera hori euren bezeroei kobratu beste erremediorik ez dute baina ez da horren erraza. Askotan urte hasieran negoziatzen dituzte tarifak eta gero ezin aldatu. Eta garraio enpresa batzuek, "ez dakit nola" baina besteak baino askoz gutxiagorengatik lana egiten dute.

Zer gertatu da egoera honetara iristeko?

Denok dakigu gasolioa asko garestitu dela, eta zailtasunak ditugu gure bezeroen tarifak altxatzeko. Normalean urte osorako salneurriak negoziatzen dira eta ezin gara ibili aldiro igoerak eskatzen. Horren aurrean Gobernuak aldiro berrikusiko diren tarifa minimo batzuk jar ditzala eskatzen dugu. Prezio horretatik behera inork ezingo du erreperidera atera.

Hiru hilabetetan gasolioa hainbeste igo bada garraioaren salneurria ere beste hainbeste igoko litzateke, automatikoki, bezeroarekin hitz egin beharrik gabe. Berdin gasolioa merkatzen bada,

automatikoki fakturak ere merkatu egingo lirateke.

Madriren akordioak sinatu arren, gero garraiolariak bere bezeroarekin adostu behar du salneurria. Posible al da tarifaren igoera derrigortzea?

Legez erabakitzen bada bai. Garai batean izan ziren derri gorrez errespetatu behar ziren salneurriak, eta egia da sinatu orduko ez zirela betetzen. Orduan eskatzen duguna zera da, hori erabakitzen bada Administrazioak jarri dezala ikuskarpen eta kontrol sistema bat. Ez dezatela beti bezala garraiolaria kontrolatu, kargadorea kontrolatu dezatela. Beste eskaera batzuk ere baditugu, karga bat eraman eta 90 egunetara ordaintzen digute. Ordaindu dezatela 30 egunetara. Konponbide erraza du honek. Kontrolatu dezatela enpresa eta 30 egunetara ordaindu ez baldin badu, isuna jarri diezaiotela. Kontrolatuak beti garraiolariak dira.

Orain arte zailtasun handiekin aurrera ateratzen zirenak jada, kamioiaren joan etorri bakoitzeko dirua galtzen ari dira, poltsikotik dirua jartzen. Lagun batek atzo esaten zidan, "21 kamioia nituen, orain 21 zulo daukat". Bidai bat egiten duten bakoitzean dirua galtzen ari dira. Kamioi bakarra izanda, utz dezakezu,

ahal bada kamioia saldu eta kito. Baina 20 kamioi badituzu 20 txofer eta 20 familia dira. Ez dakizu zer egin.

Zenbatu daiteke gasolioaren igoera hileroko zenbateko igoera den zuentzat.

lazko ekainetik, urte batean, esan daiteke ehuneko 40a igo dela. 0,90etik behera ordaintzen ari ginen eta gasolindegian 1.30ra inguratzen ari da. Baina bezeroari igoera eskatu eta askotan esango dizute badaudela beste garraiolari batzuk igoerarik eskatu gabe lanean ari direnak.

Egia da arazoaren parte bat gure artean dagoela. Ez dakigu nola baina batzuek prezio harrigarrietan lana egiten dute. Kalkuluak egin eta ez zaizkigu zenbakiak ateratzen, baina beste batzuek salneurri horietan lan egiten dute. Nola? Gasolioak edo pneumatikoek berdina balio dute gutzientzat, eta beraz prezio horietan lan egiteko modu bakarra txoferrei dagokiena ez ordaintzea izango da. Tailer batera edo bestera joan, gutxi gorabehera prezioak berdinak dira. Gasolioan ere xentimo batzuen aldea izan daiteke, beraz batzuek ez diete gidariei dagokiena ordaintzen. Ikusten dira erreperidetan eskulana oso merke saltzen duten gidari kanpotarrak.

Beraz eskulan merke horretaz baliatzen diren enpresak dira izorratzen ari direnak...

Bai, lehiakortasun hori ez da leiala. Beraz, kanpotik datozkigun zailtasunez gain, gure sektore barruan ere badauzkagu arazoak.

Zer moduz joan dira grebaren lehen egunak?

2005ean ere izan zen beste greba bat, eta esan ziguten, "kendu itzazue kamioiak erreperidetatik eta eseriko gara negoziatuzera", baina ez zen gero mahai haietatik ezer atera. Beraz, orain ere ez gaude berdina onartzeko prest. Kamioiak ez dira mugituko zerbait sinatuta egon arte.

2005eko greba hartako negoziaketetatik ez dakit zenbat puntutako akordioarekin ateratu ziren komunikabideen aurrera.

Orduan ez zen ezer lortu, gasolio profesionala soilik eta hori huskeria bat da. Orain ere garraiolarien elkarteak eta Gobernuak akordiotik oso hurbil dira, bai eta euren garraiolarien gehiengoak ordezkatzeko dutela esaten badute ere, nire ustez gaur egun garraiolariak elkarteetatik urrun daude.

Guk ere hemen Gipuzkoan Guitransen gauden garraiolariak, CETMen konfederatuak gaude baina ez gaude Madrilera ordezkariarekin ados.

Agian enpresa handietako ordezkariak dira negoziaketetan parte hartzen dutenak eta txikiak kanpoan daude...

Ez dut uste tamaina kontua denik. Komentatu dugu, 21 kamioi 21 zulo direla. Zenbat eta gehiago eduki orduan eta gehiago galtzen duzu.

Egia esan garraiolariak baduzue Gobernuak estutzeko gaitasuna. Konponduko al dira behingoz zuen arazoak?

Aurretik baditugu antzeko esperientziak, azken finean ez zen ezer lortu eta lelo aurregia gelditu zitzaigun, baina honetan zerbait lortuko dela espero dugu.

Gizarteak babestuak sentitzen al zarete?

Hemen jendeak ulertzen du eta gurekin dago. Egia da izan direla lanera joan behar eta bideak moztuta aurkitu dituztenen kejak. Edozein egunetan ilara eta korapiloak izaten baldin badira normala da protesta bat dagoenean arazoak izatea, baina oro har ulertzen da.

Konponbide batera helitzen ez bagara asko dira uzteketan, kilometro bakoitzeko dirua galtzeko zertarako segi? Tristeia litzake horrela amaitzea, inork ez zuen uste maila honetara iritsiko ginenik. •

txintxarri.

iragarkilaburrak.com

zure-iragarkia lasarte-oriatik euskal herrira

iragarki**laburrak**.com
euskalazko iragarki laburren azoka

Kiroltako agenda

ARETO-FUTBOLA

XXII. MOSSO MEMORIALA

MICHELINEN

Larunbata, 14

11:00etan, ISU Iehioak-Epel

12:00etan, Izkiña-Buenetxea

GIMNASTIKA

Igandea 15

11:00ak aldera, LOKE-Akek Andoingo Kiroldegia. Lasarte-Oriako eta Andoingo taldeetako prebenjaminen eta benjaminen erakustaldia



PALA TXAPELKETA

Astelehena 16

18:30ean, Roberto Felipe, Alvaro Reyes-Asier Goikoetxea eta Aitor Azkonobieta.

19:15ean, Iñaki eta Asier Iparragirre-Eneko Urdepilleta, Txema Urrezola.

20:00etan, Jose Ramon Alcibar, Benito del Arco-Jon eta Mikel Begiristain

Asteartea 17

18:30ean, Xabi Otaegi, Iosu Uzkudun-Jose Felix Solano eta Mikel Arroyo.

19:15ean, Martin. Iparragirre, Juanxo. Prieto-Imanol Bardaji, Iñigo Arluizaga.

20:00etan, Xabier Garcia, Asier Munduate-Jon eta Iñaki Lizaso.

Asteazkena 18

18:30ean, Patxi Kastro, Iñaki Kastro-Ivan Ruiz eta Shanti Lorenzo

19:15ean, Agustín Zubizarreta, Xabi Eugui-Eneko Iradi, Ibon Azkonobieta.

20:00etan, Iosu Iparragirre, Aitor Matxain-Carlos Garcia, Alain. Exebestea

Osteguna 19

18:30ean, Imanol. Muxika, Manu. Muñoz-Xabier eta Joseba Sarasua.

19:15ean, Edu Jauregi, Fran Ariztimuno-Xabi Etxezarreta, Mikel Bardaji.

20:00etan, Ion Pagola, Jesus Ferreira-Shanti Martin, Bernat Odriozola.



Herriko bi atletek Espainiako txapelketarako txartela dute

TXINTXARRI

LOKEko Eneritz Imaz, Leire Amiano eta Endika Larrañagak, bukaera bikaina eman diote atletismoko denboraldiari infantil mailako Euskadiko Jokoen. Hirurek lortu zuten dominaren bat Anoetan, maiatzaren 31n burutu ziren probatan. Denboraldia beraientzat amaitu dela esan daiteke, baina ez gazte mailako Maria Montero eta Leticia Tiatirentzat. Hauek Estatu mailako txapelketarako txartela lortu dute.

Maria Monterok 400 metro hesien proban Estatu txapelketan parte hartuko du ekainaren 21ean Gasteizen. Uztailaren 5 eta 6an aldiz, Leticia Tiatik Almnerian izango da Jubenik mailako Atletismo pista al aire libre Espainiako txapelketan, Pisu eta Disko jaurtiketan parte hartzeko txartela lortu du. Duela gutxi Leticia Jaengo Andujar hirian autonomi selekzioen arteko txapelketan

laugarren izan zen disko jaurtiketan. 33 metroko jaurtiketa egin zuen eta Gasteizko proban dominaren bat lortu nahi du.

Infantil mailan Gipuzkoako selekzioan ari diren Lasarte-Oriako atletak emaitza omak izan zituzten Euskadiko txapelketan. Eneritz Imazek urrezko domina jaso zuen 4x80 metro eta zilarrezkoa bakarka 150 metroko proban. Pertiga saltoan Leire Amianok zilarrezko domina lortu zuen 2 metro eta 40 zentimetroko jauziarekin eta Endika Larrañaga ere bigarren izan zen 2 metroko jauziarekin.

Sevillanok berriro marka

Pasa den asteburuan jokatu zuten Krafft-Aleatico San Sebastianeko bigarren mailako finala. Bertan Iñigo Sevillanok 100 metroko hesi-lasterketan bere marka hautsi zuen eta absoluturako marka minimotik gertu ibili zen.

JUDO

Kiarak zilarrezko domina Euskal Herriko txapelketan

Aurreko asteburuan Altzako kiroldegian jokatu zen infantil mailako Euskal Herriko Karate txapelketan Kiara Tobajas Lasarte-Oriako judokak eskuratu zuen zilarrezko domina.

Txapelketa honetan lehiatu izanagatik Kiara eta Josu Olmos ez ziren Lutxa Olinpikoan Estatu txapelketara joan. Esteban Martinez eta Mario Garrido izan ziren Murtziara, estatuko txapelketara joan zirenak baina ez zituzten oso emaitza onak eskuratu. Esku hutsik itzuli ziren, Estebanek aurreko borrokaldia galdu eta ez zuen bigarren aukerarik izan. Mariok aldiz, lehen borrokaldia irabazi zuen eta domina eskuratzeko aukera zuenean urrezko puntua galdu eta ez zuen jarraitzerik izan.

LOKEko judokak, ekainaren 21ean emango diote amaiera denboraldiari Kiroldegian egingo duten erakustaldiarekin. Aurretik, bihar Iruñean infantil eta kadete mailako txapelketa bat jokatu dute Lasarte-Oriako judokak.

TXIRRINDULARITZA Herriko BBTko taldea Extreme Oso pardo proba doa

Kattagorriak BTeko herriko taldeak asteburu honetan gorenko trabesia batean parte hartuko du., "Extreme Oso pardo". Aurtengoan proba honen 5. edizioa ospatuko da eta inoiz baino "extreme"agoa dator, izan ere Mulhacenera (3479m) igotzen saiatuko dira eta. Hartz famatuaren atzetik Asturiasek (Picos de Europa) 4 urtetan ibili ondoren, aurtun plantigradoak jarritako erronka handiagoa da. Erronka Andaluziara mugitu da han penintsulako mendirik garaiena konkistatzeko. Aurtengoan kattagorriek hartza garaituko al dute?

SQUASH

Finala jokatu da bihar kiroldegian

Arratsaldeko 16:00etan hasi da jaialdia. Kontsolazioko fasean Lanceta-Amiano arituko dira eta 3. eta 4. postuetarako fasean Udabe eta Artola. Finala berriz, Arregik eta Carreterok jokatu dute.

Kontsolazioko partida 16:00etan izango da eta finala 17:00ak aldera.

Kiroltako oharak

Lasarte-Oria Texaseko deialdia

Lasarte-Oria Texas Klubak hurrengo denboraldia prestatzeko kadetei deialdia luzatzen die. Entrenamendu egunak ondorengoak izango dira: ekainaren 16, 17 eta 19an, hau da, astelehena, asteartea eta ostegunean 17:30etan, Micheline.



Ostadar K.F. dagoeneko egoitza berrian

Ostadar Kirol Fundazioa egoitzaz aldatu da. Aurrerantzean Geltoki 25. zenbakian izango dira, Michelingo kirol-gunetik gertu, Iparragiri zapata denda zen lekalean.

Ostadar K.F.ko bazkaria

Denboraldiari amaiera emateko eta elkartearen 25. urteurrena ospatzeko 400 laguntzako bazkari herriko bat antolatu dugu. Bazkaria Michelingo Frontoian egingo dugu ekainaren 21ean. Txartelak Ostadarreko egoitzan eskuratu daitezke ekainaren 18ra bitartean.

Alebinentzako deialdia

Hurrengo denboraldia prestatzeko Ostadarrek alebinentzat, 1997. urtean jaioakoez, entrenamenduak prestatu ditu. Deialdietako datak ondorengoak dira: ekainaren 16an eta 18an, 18:00etatik 19:00etara, Michelingo futbol zelaian.



Sara Renteria diploma eta saria jaso ondoren.

Emaitza onak gimnasia erritmikoko finalean

Joan den larunbatean, hilaren 7an, Euskal Herriko liga ospatu zen Gasteizko San Andres kiroldegian. LOKEko Sara Renteriak eskuratu zuen bosgarren postua uztailarekin eta lehenengoaz mazekin. Hemeretzi parte hartzaileen artean Sarak eskuratu zuen hirugarren postua sailkapen orokorrean.

Datorren igandean, ekainaren 15. ean, Lasarte-Oriako eta Andoingo taldeetako prebenjaminen eta benjaminen erakustaldia egongo da Andoingo kiroldegian 11:00ak aldera eta ekainaren 22an goizeko 11:00etan kurtso amaierako jaialdia ospatuko dute Lasarte-Oriako kiroldegian.

Egunero

Erakusketa

JOSE MANUEL MONGE margolariearen ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai astelehenetik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

Erakusketa

AMARAUN JAIALDIAN, Jalgune Elkarteko kideek ateratako argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan



Ostirala, 13

Kontzertua

RUBÉN SALVADOR 4ET, Ruben Salvador tronpetariak gidatutako laukoteak kontzertu bikaina eskainiko dute. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Gotzon Huegunen erakusketa

GOTZON HUEGUNEK, herriko eskultoreak Hernaniko Udaletxean ikusgai ipini du bere azken lana ekainaren 17ra bitartean. Ikusgai dagoena Oilume auzoari buruzko egurrean zizelkatutako pieza da.

EKAINAREN 17RA ARTE
HERNANIKO UDALETXEAN

Larunbata, 14

Jaialdia

XIRIMIRIREN URTEURRENA. Goi-zean mendi martxa Buruntzara; eguerdian trikipoteoa Txalagoreren eskutik; 14:30ak aldera herri bazkaria Xirimirin; bazkalostean Mus Txapelketa; 20:30etatik aurrera musika emanaldia + festa: Apurka, Petti eta Naken Seletor.

Kontzertua

ARGI BELTZ emanaldia Tirri Tarra fanfarrea eta Alboka abesbatzarekin. Andatza plazan, 23:00etan.

Igandea, 15

Erromeria

Semblante Andaluz-ek antolatuta MEZA ROCIEROA. 12:00etan Ama Birjinaren bila jetsiera Arantzazuko Amaren Parrokira; 12:30ean Meza Rocieroa "Semblante Rociero" abesbatzaren eskutik. 16:30ean ekitaldien hasiera Isla Plazan; 19:30ean dantzaldi herrikoa.

Asteartea, 17

Musika

UDAL MUSIKA ESKOLAKO ikasleek emanaldia dohainik. Kulturetxean, 19:00etan.

6. Antzerki Astea

Azkeneko ekitaldiak

Ostirala 13

22:30ean, "KLIK-ON" Helduen antzerkiko 2. taldea.

Larunbata 14

20:00etan:

• "TELEFUNKEN TRAGA RAGGA" DBHko dantza garaikideko taldea.

• "LOLY POP" DBHko dantza garaikideko taldea.

• "EUSKAL OHIARTZUNA. SUA ETA LURRA" Helduen dantza garaikideko 1. taldea.

• "KEIÑUKA" Helduen dantza garaikideko 2. taldea.

Amaitzeko, "BATUKADA" Ttakun Kultur Elkarteko taldea.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Sorgin dantzaren entseguak hasi dira

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, hasita daude astearte eta ostegunero entseguak Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duzuenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin Dantza ongi dantzatzen baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizute.

Glottodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glottodidaktika ikastaroa antolatuta dute. Euskara irakasteko oinarritzko prestakuntza emango da ikastaroan ekainaren 30etik uztailearen 24ra bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora

(Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.

Larrain dantza ikasteko saioak

Herriko festak aitzaki hartuta, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantza ikasteko saioak antolatu dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan. Entsaioak Erketzen lekalean egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttakunen (943 371448).

Maria Auxiliadora elkar-teenen irteera

Ekainaren 15erako antolatuta du Lasarte-Oriako Maria Auxiliadora elkarteak irteera. Lehenengo Segurara joango dira, gero Zumarragako Antigua ermita ikusiko dute eta ondoren Oñatin bisita gidatua izango dute. Arantzazun bazkaldu eta gero, Arrikruz

koba bisitatuko dute arratsaldean. Izena eman nahi duenak ondoko bi telefono huetara deitu behar du: 943 363675 eta 943 360042.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Gure eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 2tik 13ra irekita izango da.

Kartel lehiaketa

Durango Azokako 43. edizioa prestatzen hasi dira eta kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dagoela gogorazi dute antolatzaileek. Ekainaren 27an amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago behar izan ezkeror www.durango-koazoka.com helbidean parte hartzeko oinarriak aurkituko dituzue.

La Esperanza, Bizilagun elkarteko oharra

"La Esperanza" B. E. -ak, Antxisu auzoko sarbide arriskutsuari dagokionez zera

adierazi nahi du: Aldundiak Udaletxeari bidalitako proposamenari buruzko informazioa jaso duela Udaletxean, eta horren berri eman ziela Antxisuko bizilagunei, zeinek proposamena aztertze ondoren proposamen berri bat aurkeztearabaki baitzutel. Proposamen berri hori Antxisu auzokoek "La Esperanza" B.E-ari pasa diotela eta honek laister aurkeztuko duela Udaletxean.

Pinturako klaseak amaitzen dira

Datorren larunbatean ekainaren 21ean Bizilagunen Elkar- teak eskaintzen dituen pintura eta marrazketako eskolak amaituko direla jakinarazi nahi dute.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Zikiro afariko txartelak salgai

San Pedro jaietan urtero Ttakun Kultur Elkar- teak antolatzen duen Zikiro afarirako txartelak salgai dardela jakinarazi dute. Eskuratu nahi dituenak, Jalgin eta Ttakunen bertan ditu salgai 18 eurotan.

“Berriro piztu zait dantzarako gogoa”

- Dantza garaikide emanaldiak emango dio amaiera bihar 20:00etan 6. Antzerki Asteari
- Bukaeran Maider Oiartzabalen hiru taldeek Ttakunpa batukadarekin dantza egingo dute

Dantza garaikide emanaldiarekin emango zaio amaiera 6. Antzerki Asteari. Guztira bost pieza dantza-tuko dituzte Maider Oiartzabalen hiru taldeek eta amaieran guztiak elkartuko dira batukada taldearekin batera. Landaberri Antzerki Eskolako irakaslea, Kukai dantza taldean ari da, berak "Bidean" izeneko lana sortu du aurten eta Dantza Bilaka mostran parte hartu du. Ez da geldid egotekoa herriko dantzaria.

JON ALTUNA

Maider Oiartzabal Lasarte-Oriako dantzariak zuzentzen dituen hiru taldeek dantza egingo dute bihar arratsaldeko 8etan Manuel Lekuona Kultur Etxean. Berak kontatu digu 6. Antzerki Astearen amaiera ekitaldiko lanak zer nolakoak izango diren. "Dantza erakustaldi bat egingo dugu. Euskal Oihartzuna izena hartu duen helduen taldeak euskal dantza eta garaikidea uztartu ditu (Sua eta Lurra bi lanetan). Keinuka beste helduen taldeak prestatua garaikide garaikidea da. Denak dira garaikide baina lan hau gehiena. Gazteenak doinu modernoagoak dira. Gazteek energia pasatzen didate eta musika azkarragoa, pauso zailak, lurrean erabiltzeko teknikak,... sartu ditugu. Bi dantza egingo ditugu Telefonken Ragga-Ragga, eta Loli Pop. Bigarrena dantza oso alaia da, teknikoki ez oso zaila".

Eta Batukadarekin batera Antzerki Asteari amaiera...

Ilusioa egiten zidan hiru taldeek batera dantzatzeko. Ideia horrekin, Ttakunpa taldearen kanta batekin ensaiatzen hasi eta batukadarekin batera sortutako dantza hau ateratu da.

Guztira zenbat lagun izango dira oholtzan?

45 bat lagun izango dira. 30 dantzari eta batukada taldeko 15 bat.



Noiztik ari zara talde hauekin?

Duela hiru urte hasi nintzen gazteekin eta helduekin izango dira 5 urte, bigarren antzerki astean jada izan ginen eta.

Nabaritzen al da urtez urte hobetzen ari direla?

Bai, nabaritzen da, batez ere gazteekin. Azkenean astean behin elkartzen gara, eta ordu eta erdik ematen du ematen duenerako. Helburuak ere direnak dira, zein da helburua? Teknikoki matxakatu eta dantzari onak ateratzea? Hemen helburuak beste batzuk dira.

Gaiak nondik ateratu dira?

Gazteen bien eta helduen keinukaren kasuan, kanta aukeratu, gustatu eta horren inguruan landu ditugu. Euskal Oihartzuna taldearekin lau elementu lantzeko asmoa geneukan: lurra, sua, haizea eta ura. Gero lehenengo biek geratu ginen.

Noiztik zabilta dantzari?

Ni betidanik, txikitan hasi

nintzen Landaberri ikastolan, euskal dantzarekin. Gero, 15-16 urterekin edo, euskal dantzak ez ninduen asko erakartzen, beti berdina egiten genuen, nahiz eta Eskola, garai hartarako nahiko moderno eta garaikidea izan. Txetxu Fuentes zuzendaria, beti izan da berritzailea. Beti berdina egiten nekatu, garaikidean hasi, eta konturatu nintzen gorputzarekin nahi nuena komunikatzeko aukera nuela... Garaikideak aukera eman dit gorputza ezagutu, kontrolatu eta hortik aurrera nahi nuena egiteko.

Non ikasi zenuen?

Kultur Etxean hasi nintzen. Gerora leku askotan egin ditut ikastaroak, Bartzelonan, Valentzian, Frantzian, Donostian...

Anaia Ismael ere dantzaria da...

Biok, eskutik helduta, elkarrekin, joan ginen kultur etxera dantza garaikidea zer den probatzera. Lehenengo klasea elkarrekin hartu genuen.

Eta zer moduz? Non dabil?

Kanpora joateko apustua egin zuen eta pozik dago. Suitzan bizi da. Kanpora joanda badi-rudi han mauka dagoela baina gertuko bat kanpoan edukitzeak errealitatearen islada ematen dit, ikusten duzu kanpoan ere ez dela erraza.

Gustuko al duzu irakasle lana?

Bai.

Zer moduzko harrobia dago Lasarte-Orian?

Nik uste kristoren potentziala duen herri bat dela Lasarte, baina, eskola hau ez da profesionalak sortzeko eskola, beste helburu batzuk ditu printzipioz.

Zaintzen zara?

Bai, zaindu behar da.

Adinarekin gero eta gutxiago?

Gero eta gehiago. Lanpostu bakoitzak berea dauka eta dantzan fisikoki sendo mantendu behar... Zaila da, hala ere. Koreografia batekin hilabete bat edo bi, topera aritzen zara

baina, gero soilik emanaldietarako deitzen zaituzte eta bitartean mantendu egin behar duzu gorputza, dantzak hori eskatzen du.

Atzo bertan galdetzen zidan batek. Jan kontutan zaindu beharko duzu zure burua? Ez da argaltzearen kontuarengatik, dantzari asko gaude oso beteak eta oso ondo dantzatzeko dugunak, estereotipo horrekin puskatu behar dugu. Dantza motaren arabera, ez duzu argala egon beharrik.

Irakasteaz gain, zer egiten duzu? Dantzan ari al zara?

Bai, *Bidean* izeneko nere sor-kuntza batekin ari naiz eta beste proiekturen bat ere badaukat. Orain arte urte askotan aritu naiz irakaskuntzan eta gustura. Baina, nere pieza sortu nuen, emanaldi batzuk egin ditut eta berriro piztu zait dantzatzeko gogoa.

Aterako al da talde hauetatik dantzariak? Gazteetatik agian?

Nahiko nuke. Jokin Ayerregairaren kasua kuriozoso da. Hiru urterekin klaseak eman nizekion, orduan gorputz adierazpena, noski, eta 13 urterekin berriro topatu gara elkarrekin. Hiru urtetan nerekin egon da berriro lanean, jada 16 ditu eta sekulako estiloa dauka.

Somatzen al duzu gustura dandela?

Oso gustura.

Helduak ere bai

Nik uste formularengatik dela, helburua ondo pasatzea da, oso gogorak izan gabe, eta oso eroso sentitzen dira. Hori aldatuz gero akaso ez lirake horren gustura egongo. Batzutan ematen dit gogoa kaña gehiago sartzeko, baina jakin behar non zauden. Kukai konpainiakoei ere ematen dizkiet klaseak eta desberdina da, haiei formakuntza bat ematen ari naiz. •

EUSKARAREN MARATOIA

7

Zer egin nahiko zenuke maratotoiean?

Sartu web orrian eta proposatu!

Korritzeko modukoa!

Lasarte-Oria 2008ko urriaren 18a eta 19a

www.euskararenmaratoia.com